

# BERBAROTARRA 13.zk. 1997ko maiatza

## EUSKARA ZERBITZUA ESKATZERA GOAZ

Euskara Zerbitzua udalerriko hizkuntza politikaz eta euskararen normalizazioaz arduratzen den udal zerbitzua da; Durangoko herriko euskarak arnasa pixkat hartzeko behar beharrezkoa. Horregatik egin genuen udalean 1992. urtean Euskara Zerbitzua martxan jartzeko eskaria.

1994. urtean "Normalizazio plana" zeritzon txostenari eman zitzaion sarrera. Normalizazio plan horretan euskara zerbitzua martxan jartzea proposatzen zen. Egon badago arlo honetaz arduratzen den langilea udalean, baina txosten

horretan agertzen den moduan ez da oso egokia betekizun horiek pertsona bakar baten ardurapean egotea.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak 20 mila biztanle inguruko herrietan Euskara Zerbitzua 3 funtzionarioz eratua egotea gomendatzen du: euskara arduraduna, itzultzaile-zuzentzailea eta administrari laguntzailea.

Mila arrazoi dago udalean Euskara Zerbitzua egoteko eta orduko udalbatzak aho batez onartu zuen proposaturiko "Normalizazio Plana".

Euskara Zerbitzuak, Durangoko euskeraren egoera ikusita, zeregin zehatzak bete beharko lituzke: euskararen inguruan

dabiltzan herri talde eta erakundeekin batera hizkuntza normalkuntzarako plangintza prestatzea, eta hizkuntza eskakizunen plangintzaren jarraipena egitea.



### ZERBITZUA SORTZEAREN ALDEKO KANPAINA

Zerbitzuaren aldeko kanpaina ez du Berbaro Elkartek bere kontura egingo. Horretarako Durangoko beste talde batzuekin bat egin dugu gai honekin kezkatuta daude eta. Jesuitetako ikastetxea, Landakoko ikastetxea, Kurutzia Ikastola, Gerediaga Elkartea, Udal Euskaltegiko irakaslegoa, Abarrak AEKren euskaltegia, Kurutzia Ikastola Fundazioa, Fray Juan de Zumarraga Institutuko euskara batzordea, Guezan Ba! gazte taldea eta Berbaro izango dira eskari hau udalari egingo diotenak.

Durangarrei Euskara Zerbitzua zer den azaltzeko asmoa daukagu, alderdi politikoekin harremanetan jarriko gara eta azkenik udalean eskaria egingo dugu.

# BAGABILTZA BAGABILTZA

**Lehendakaria, diruzaina eta idazkari berriak** ditugu apirilaren 29an egindako batzar orokorraz gerotzik. Aurkezpena merezi dutela pentsatu dugu, hauek dira: Amaia Zarrabeitia lehendakaria Arantza Agirrereren orde. Pablo Sagardoy idazkaria Aitor Uriarteren orde eta Idurre Maortua diruzaina.



## Ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketa 97 inoiz baino arrakastatsuagoa

Berbaro elkartearen ekintzarik esanguratsuenetakoa den Ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketari oihartzun handiagoa ematea nahi genion aurten. Horretarako, lehen Durangaldekoa zuen muga zabaldu egin genuen, publizitateak eragin handiagoa izateko normalean baino hile bi lehenago hasi ginen lanean eta benetako esfortzua egin dugu baztar guztietaraino heltzeko lehiaketaren deia.

Esan bezala, hazia kontu handiaz erein dugu eta egia esan fruitua espero baino hobea izan da. 351 partaide, iaz 120 bat izan zirenean, Iruñetik, Irunetik, Gasteiztik, Getxotik, Bolougnetik eta noski Durangaldetik bertatik etorritakoak. Lanen kalitatea azpimarratu

digute epaimahaikideek. Xabier Arrinda eta Josu Unzueta ipuinetan, Jon Roman eta Imanol Garaizabal komikietan eta Goio Eguren, Unai Iturriaga eta Igor Elortza betsoetan izan dira 351 lan irakurri, aztertu, baztertu eta merezi izan dutenak saritu dituztenak. Iñaki Barañano izan dute edozelan ere erabakia hartzerakoan beti ondoan epaimahaiburu lana egiten.


Sari-banaketa apirilaren 25ean egin genuen Durangoko Arte eta Historia museoan. Arrazolako semea den Eguzkik egin zuen aurkezpen lana

## TXOKOAREN SARRERA KUOTA IGOKO DA

Apirilaren 29an egindako batzar nagusian txokoko sarrera kuota igotzea proposatu zen. Igoeraren arrazoiak bi dira; batetik, inbertsio batzuk egin beharra dagoleako eta bestetik, hasieran sarrera kuota oso merkea jartzea pentsatu bazen ere, urte bete pasatu eta gero merkeegia dela iruditzen zaigulako.

Honako proposamena egin zuten: bazkideko 20.000 pta, bikoteko 30.000 eta lanik ez dutenentzat 15.000 pta. Edozelan ere, igoera hori ez da Ekainaren 30a arte ezarriko beraz, txokoko bazkide egiteko asmoa daukazuenok arin ibili.

ezin hobeto eta amaiera modura Seve Diez eta Teresa Lopez de Muniainen "Urrundik eta elkarrekin" antzerki saiotxoak ikusteko aukera izan genuen.



# Elkartearen 8. urteurrena

8 urte bete ditu zurea/gurea den elkarte honek. 1989ko maiatzaren 21ean egin genuen aurkezpena eta ordutik hona gauza asko egin ditugu, ondo batzuk, txarto ere bai beste batzuk. Hasierako 100 bazkidetik 400 izatera heldu gara, sensibilizazioa, kultura, irakaskuntza, administrazioa, negozioak, komunikabideak aisialdia, gazteak, lan-poltsa, itzulpenak... danetik egin dugu, dena helburu bakar batekin EUSKARA BULTZATZEA.

5. urteurrena "a lo grande" ospatu genuen 5a zenbaki esanguratsua delako edo. Oraingoa zarata handiegirik barik egingo dugu, baina ospatuko dugu bai. 8 urte hauek ospatzeko lau ekitaldi xume prestatu dizkizuegu:

**21ean: Euskara Zerbitzuari buruzko**

## LARROSA

Urkoiz autoeskolakoek merezi dute duda barik larrosa oraingoan. Gidabaimena ateratzeko aukera eskaintzen dute "ososorik euskaraz" beraiek dioten modura.




## ARANTZA

Laugarrenez antolatu dute erderaz Juan de Iciar Kultur Elkarteakoak "Pasioa" delako herri antzerkia Durangar askok eta askok parte hartzen duen ekintza honetan, bai lanean eta baita ere ikusle modura. Bada sasoi a euskarari merezi duen garrantzia emateko.



**HITZALDIA.** Zer den, zer garrantzi duen, zer eragin duen azalduko digute Eusko Jaur-laritzako HPSko Herri Administrazioetarako Hizkuntza Normal-kuntzarako Zuzendaria den Arantza Aurrekoetxeak eta



Eibarko teknikaria den Fernando Muniozgurenak. Pinondo Etxean arratsaldeko 8etan.

**22an: Tabernako Kultura taldeak rock talde ezagun baten kontzertua antolatu du. 9etan tabernan bertan.**

**23an: Bertso afaria izango dugu Kurutzia Ikastolan**

**iluntzeko 9etan.** Afari hau elkarte bazkideentzako prestatua izango da bereziki. Horretarako bertsoak, txisteak, kantua eta denetik izango dugu. Betiko erara txartelak Berbaro eta Hitzen izango dira. Hori bai, oraingoan osteguna baino lehen hartzen dituenak 1.600 pta ordainduko ditu eta txartel barik doanak 1.800.

**24an: Txokoko taldetxoak Mus txapelketa antolatu digu.** Txapelketa horretan parte hartzeko bikoteko 1.500 pta ordaindu beharko dira tabernan bertan. Hasiera arratsaldeko 4etan

emango zaio eta egunean bertan bukatuko da.

Ekintza guzti hauen antolaketan bazkideon laguntza beharko genuke, beraz, prest bazeundete parte hartzeko deitu egiguzue mededez Berbarora.

## TABERNAKO KONTZERTU ARRAKASTATSUAK

Berbaro tabernan egindako azkenetariko kontzertuak ikaragarriko arrakasta izan zuten. **Dut** talde ezaguna izan genuen eta benetan tabernan ez zegoen inor gehiago sartzeko lekurik.



*Euskal martziano, unibertso eta beste*

# Gazte topaketak

**Apirilak 3, 4, eta 5ean Euskal Herriko 13 gazte taldetako kideak batu ziren Ormiñon Guezan Ba! Berbaroko gazte taldeak gonbidatuta. Hau da beraiek egindako balorazioa.**

Ostiral arratsalde batez, Guezan Ba!!! gazte-taldeko batzar batean, gu unibertso honetan bueltaka dabiltzan martziano bakarrak ginen komentatu zuen baten-batek. Bagenekien nonbait, norbaitek, zerbait muntaturik zuela, baina geneukan informazioa ez zen nonbait-norbait-zerbait mugatik igarotzen.

Horrela Berbaroko paperen nahaste-borrastean sudurra sartu eta han begiratuaz eta hemen galdetuaz gazte talde ezberdinei

buruzko informazio mordoska eskuratu genuen.

*"Baina, jende hau nolakoa izango ote da?"* -galdetu zuen batek-

*"Gu bezain martzianoak seguru aski"*. -erantzun zion besteak-

Espekulazioetan ibili beharrean, zerbait konkretuagora jotzea erabaki genuen. Horrela hasi zen, nere ustetan, GUEZAN BA!ren bidaia inizatiko suertatu den GAZTE TALDE EUSKALDUNEN TOPAKETA.

Boteprontoan botatako

ideia pixkanaka-pixkanaka garatuz joan zen eta lau hilabetez egindako lan gogorrek bere fruitua eman zuen Oromiñoko aterpetxean, apirilaren 3, 4 eta 5ean. Oromiñon, Euskal-Herriko puntu ezberdinetatik etorritako hainbat gazte-talde biltzeak eta bertan talde bakoitzak lekuan-

deritzona egitea.

Ligatzeko saio frustatu bat soilik?. Dinamika berri batzuentzat zabalduko leiho berri bat? Azken baten, topaketa hau euskalgintzan ari diren gazte-taldeen artean beste tresna bat besterik ez da izan. Argi dago, lanean jarraitu beharko dela eta hau ez dela ekintza isolatu baten geldituko.



## Labur-labur

**Gazte taldeak:** Elorrioko Barriketan, Lasarteko TTakun, Donostiko Bagera, Bergarako Jardun, Arrasateko AED, Oñatiko Laixan, Deustuko Deustuari Euskara Dariola, Eibarko ...eta kitto, Bortzirietako Erausian, Oretetako Lau Haizetara, Arrigorriagako Abarrak, Basauriko Euskarabila eta Durangoko Guezan Ba!

**Partaide kopurua:** 75

**Helburuak:** Gazte talde euskaldunen arteko esperientzien elkartrukaketa eta aurrerantzean elkarlana bide-eratzeko aukerak aztertzea.

**Balorazioa:** Guezan ba! Berbarotik sortutako gazte taldea ezaguna egin da Euskal Herri mailan. Esperientzia trukaketa derrigorra eta oso positiboa dela ikusi dute. Erabakia hartu dute datorren urtean ere beste gazte topaketa batzuk antolatzeke.

lekuko egoeraren azterketa egin ondoren egoera honi buelta emateko ekintzak aztertzeak, euskalgintzan ari diren gazte-taldee buruzko ikuspegi zabalago bat izateko aukera paregabea eskaini zigen.

*"Ligatzea baino ez zitzaigun falta"*, pentsatuko du batek baino gehiagok. Egia esan taldekoentzat, hori izan ezik, jarritako beste helburu guztiak (lehen kontaktua egitea, esperientzien elkar-trukaketa) bete ziren. Orain bakoitzari dagokio bertan lortutako informazioarekin egokien